

BELAPEIREREN CATECHIMA LABURRA-RI BURUZKO OHAR JAKINGARRI ZENBAIT

Sohüta, 1996-07-20

Pello Agirre Sarasola

0. Jaun andreok, arratsalde on!

Lehenengo eta behin eskerrak eman gura dizkiot Euskaltzaindiari, Belapeirek idatzi dotrinaren argitaratzearen oroitza gureganatzeko egiten den ospakizun honetan esku hartzeko parada eskaini didalako.

1. Aurten 300 urte, 1696an inprimatu zuten *Catechima laburra* Paben, Jérôme Dupoux inprimatzailearen lantegian. Euskal liburu anitz, bereziki Zuberoan ondutakoak, Biarnoan izan ziren inprimatuak, hala nola XVII. mendean Tartasen biak, *Onsa hilceco bidia* (1666) eta *Arima penitentaren occupatione devotaq* (1672), Orthezen “Jacques Rouyer Erregueren Imprimaçalia baitan” zein Gazteluzarren *Eguia catholicac* (1686) Paben Desbarats inprimatzaile-familiaren lantegian. Hurrengo mendean Martin Maisterren *Imitacionia* (1757) ere, esaterako, Paben Desbarats-tarren moldiztegian izan zen “mouldeçco Leteretan eçarria”.

Atzerriko inprimategietan konposatzaileek (hots, tipoak, letrak banan-banan hartu eta testua osatzen zuten langileek) ez zekiten euskaraz. Ondorioz, euskarazko liburuak usu inprimatze-hutsez josita plazaratu ziren. Gaur filologooi dagokigu testu zahar horien edizioak paratzean inprimatze-errakuntzak atzeman eta zuzentzea. *Catechima laburra*-z den bezanbatean, liburuaren lehen partean bigarreanean baino inprimatze-huts haboro ediren ditut. Aipa dezagun, bestalde, lantegi berean (Jérôme Dupoux baitan, Paben) inprimatu 1706ko katiximak, Jacques de Maytiek zubereratu zuenak, askoz huts gehiago dituela.

2. Trentoko Kontzilioak herriaren hezitzea ezarri zuen eginbide gehien, baina Frantzian hurrei dotrina irakasteko mugimendua geroago azkartuko da, XVII. mendearen bigarren erdian. Kristau-ikasbideen argitaratzeaz den bezanbatean, 1670 urtearen inguruan jar dezakegu muga. Izan ere, 1670 arte apezpiku gutxik inprimarazi zuen elizbarruti-katixima (erran nahi baita, barruti osoan irakatsiko zen eskuliburua) eta handik harat dotrinak ugaritu egin ziren Frantziako barrutietan barrena.

Zuberoa Oloroeko elizbarrutiaren baitan zegoen eta bertan Trentoko Kontzilioaren ezarpena berankorra izan zen. Ezagutzen dugun lehen dotrina kato-

liko inprimatua, Belapeireren *Catechima laburra*, XVII. mendearen amaiera-koa da. Gainera, zuberotar batek idatzi zuen, euskaraz eta elizbarrutiaren zati euskaldunean erabiltzeko. Barruti osoko lehen katixima 1706koa da, Joseph de Revol gotzainarena, inprimatze-huts asko dituela eta arestian aipatu dudana hura.

3. *Catechima laburra*-k edizio zahar bakarra izan zuen, 1696koa. Eta bakar hura, agidanez, garai hartan Oloroeko apezpiku zen Charles de Salettes-en onespelik gabe egin zuten. Apezpikuak eta haren bikari jenerala (hots, Zuberotan gotzainaren ordezkaria) zen Belapeirek gora-behera eta haserreak izan zituzten. Charles de Salettes-ek katixima argitaratzeko baimena ukatu egin zion Belapeireri beti ere. Ondorioz, *Catechima laburra*-k ez du portadan izenburuan ohikoa zen “halako apezpikuaren manuz inprimatua”. Halaber, ezta agertzen liburuaren atarikoetan apezpikuaren ordenantza nahiz mandamenturik. Gotzainak halako ordenantzen bidez parrokia orotan kristau-ikasbide hura, hura eta ez besterik, irakats zedila agintzen zuen. *Catechima laburra*-k, besteak beste, Belapeire ofizialaren bi ordenantza (frantsesez bata, euskaraz bestea) dakartza hasieran.

Ez zuten Belapeireren kristau-ikasbidea urte askotan barrera irakatsi Zuberoko parrokia-eskola eta elizetan. Izan ere, hamar urteren buruan, 1706an, Joseph de Revol Oloroeko apezpiku berriak elizbarruti osoan erabiliko zen lehen dotrina inprimarazi zuen. Frantsesez ondu zuen kanpotarra zen apezpikuak eta, herri xeheak frantsesik ez zekielarik, euskarara eta biarnesera itzularazi. Jacques Maytie Oloroeko kalonjea eta Zuberoko bikari jenerala izan zen katixima berriaren euskal itzultzailea. Maytieren itzulpenak, beraz, *Catechima laburra* ordezkatu zuen. Eskuliburu berriak, jakina, “Joseph de Revol hanco apezcupiaren manuz eguina” du izenburuan, eta Oloroeko gotzainaren ordenantza dator hasieran.

4. Badirudi Pierre de Chamalbide eta beste apaiz zuberotar batzuk bultzatu zutela Belapeire katixima izkiribatzerara. Bazen beharrik. Izan ere, Belapeireri sinesten badiogu, 1686an apaiz batek euskaratutako kristau-ikasbide izengabea ez zuten apaizek ontzat eman, abade gazte hark huts askotxo egin baitzituen hala dotrina azaltzean nola euskaraz baliatzean.

5. Belapeireren liburuak bi parte ditu. Lehendabizikoak girstino-dotrina osoaren azalpen laburtua dakar galdera-erantzunez eratu. Dotrina osoa dator, erran nahi baita, Trentoko Kontzilioaren kristau-ikasbidearen lau atalak: kristauak sinetsi (Credo), eskatu (otoitzak), egin (manamenduak) eta jaso behar dituenak (sakramentuak).

Katiximaren bigarren partean urteko *besta gehienak* azaltzen dira: Jesusen festak, Mariarenak eta santuenak. Bigarren parte osoa frantsesetiko itzulpena da, Bossuet frantses apezpiku ospetsuak idatzitako katiximatik jasoa da. Bossuet-ek 1687an *Catéchisme du diocèse de Meaux* liburu mailakatu inprimarazi

zuen, jakintza maila desberdinei dagozkien hiru katiximaz osatutako liburua. Hirugarren katixima da Belapeirek ia hitzez hitz itzuli zuen iturria.

Belapeireren liburuaren erdia itzulpena izatea ezustekoa izan da. Frantsesez idatziriko dotrinen oihan zabalean barrena abiatu nintzelako egin nuen aurkikuntza. Zuberotar egileak ez du itzuli duenik adierazten, izenburuan ez dator Bossueten aipamenik. Garai hartako idazleen ohiturak, jakina, ez ziren egungoenak. Eta ohikoa zen beste autore batengandik hainbat pasarte bere hartan jasotzea, iturriaren inolako aipamenik egin gaberik. Nolanahi ere den, Belapeirek ehundik gora orrialde euskaratzen ditu.

Lehen partearen bi iturri ere ediren ditut. Sei zati *Mattereren Dotrina Christiana*-tik jasoak dira, eta beste hainbeste Bossueten katiximatik. Izan ere, garaiko ohitura zen katixima berri bat ontzerakoan aurreko eskuliburuez baliatzea. Eta kristau-ikasbide batzuek ospe handia zuten erdietsia Frantziako elizbarrutietan barrena.

6. Zuberohan aspaldi egiten zen euskarara hurreratzeko lekukorik bikainenetakoa dugu *Catechima laburra*. Bi arrazoirengatik: 1. Belapeire zuberotarrak nagusiki bere sorterriko hizkera erabili zuelako, hau da, ez zelako behenafarrera edo lapurterara gerturatzen saiatu. 2. Testu luzea delako.

6.1. Belapeirek zubereraz, bera mintzo zen euskaraz, izkiribatu zuen katixima. Aldi hartan izan zen beste jokabiderik: Oihenart zuberotarrarena, esate baterako. Ahalik eta irakurle multzorik zabelenera iristeko autore zaharrek beren sorterriko hizkera hedatu beharra zuten, jende gehiagorengana iritsiko zen hizkera orokorragoa eskaini. Baina Belapeireren irakurlegoa mugatua zen, berez; izan ere, katixima irakurri, entzun eta ikasi behar zutenak zuberotar fededunak baizik ez ziren. Beraz, Belapeirek ez zuen bere hizkera behenafarrera nahiz lapurterara hurbildu beharrik. Are gehiago, zuberera hutsez idatzi beharra zuen. Katixima izateagatik bihurtzen da, bada, Belapeireren liburua zubereraren zuzeneko lekuko. Oihenart eta Zalgizeren olerki eta atsotitzetan, aitzitik, zuberera bilatu egin behar da, haien testuak galbahetu egin behar dira.

6.2. Bestalde, 300 bat orrialde dituen *Catechima laburra* XVI eta XVII. mendeetako zubererazko beste testuak baino askoz luzeagoa da. Aipa ditzagun, lekuko zaharretetik hasita, laburrak diren gainerako testu horiek:

a) Joanes Leizarragak 1571an Itun Berriaren itzulpenaren ondoren, zuberotarren lagungarri edo, ezarri zuen hiztegiñoa. Zuberohan erabiltzen ez ziren hitzen parean zubererazko ordaina eskaintzen du: *behatzea*, Zuberohan *so eguitia*; *cikotza*, *Z chekena*; *neurria*, *Z izaria*; e.a.

b) Jacques de Belaren atsotitzak. Belapeireren aitak frantsesez idatzi zituen entziklopedia moduko sei liburuki luzeetan zubererazko errefrauak tartekatatu zituen. Jacques de Belaren 45 esaera zahar editatu zituen Koldo Mitxelena.

c) Tartasen *Onsa Hilceco Bidia*-n datozen hiru testu labur: Tartasen lana inprimatzeko egoki dela baieztatzen duen testu laburra, A. de Conget eta B. Jauregiberri sinatua; P. Darhetz-ek Onsa-ren autoreari eskainitako laudoriozko bertsoak; eta Bonnecase Mauleko erretoreak izenpetutako testutxoa.

d) Tartasen bigarren liburua, *Arima Penitentaren Occupatione Devotaq*, argitaragarri dela baieztatzen duen oharra, Bonnecase Mauleko erretoreak eta Fr. Nicephore izeneko fraide batek izenpetua.

e) 1676. urtearen inguruan argitara zen 33 orrialdeko liburuñoa, izenburua latinez duena: *Pronus singulis diebus Dominicis [...]*. Testu izengabea delarik, egilea Belapeire bera izan daiteke. Izan ere Belapeirek euskaraz idatzitako ordenantzaz aipatzen du urte asko lehenago pronoa idatzi zuela (ikus 19. or.). Doktorego tesian *Catechima laburra* eta *Pronus* testuetako grafiak eta lexikoa alderatu ditut berdintasun aipagarriak aurkituz. Egindako azterketak, bada, *Pronus* Belapeirek idatzia izan daitekeelako hipotesia indartu egingen du.

7. Dagoeneko aipatu dugu *Catechima laburra*-k edizio zahar bakarra izan zuela, 1696koa. Zernahi gisaz, esan behar da XIX. mendearen amaieran orrialde batzuk berrinprimatu zirela. Izan ere, Biarnoko liburuzale batek hainbat orrialde falta zituen ale zaharra zuen, eta galdutako orrialdeak inprimarazi egin zituen Paben bere liburua osatu ahal izateko.

Catechima laburra-k, bestalde, edizio modernoa izan zuen Jean Louis Davanten eskutik, 1983an. Davant-ek ezagutzera eman zuen, edizio zaharraren faksimilea ere eskainiz. Azken urteotan zehar doktorego tesiko kapitulu bat osatzen duen edizio kritiko berria egin dut.

Egun egon litezkeen ale zaharren bilaketa eginda, testua osorik eskaintzeko aukera eman didaten bost ale erabili ditut: 1. Julio de Urquijorena (Donostia, Koldo Mitxelena kulturunea), 2. Lazkaoko beneditarren komentukoa (Intxausperen zigilua du ezarria), 3. Bonaparte printzearen alea (Chicago, Newberry Library), 4. Antoine d'Abbadie-rena zen alea (Paris, Bibliothèque Nationale), 5. Bétarram-go monastegian dagoena. Azken monastegi honetako liburuzainak azaldu zigunaren arabera, ez dakite nolatan iritsi zen Belapeireren katixima beraien liburutegira, eta ez dute beste euskal liburu zaharrik.

8. Kristau-ikasbide zenbait euskara aski zabarrean izan ziren idatziak, idatz-modua zaindu gabe, idazkera landu gabe, erderatiko hitzak barra-barra erabiliz. *Catechima laburra* bestelakoa da, Belapeirek ez baitzuen nolnahi idatzi. Ezagutzen zuen apezek euskaraz irakasteko zituzten zailtasunak, baina euskaraz iharduteko agindu zien. Lehenago aipatu dugun 1686ko katixima izengabea euskara ez zitzaion laket. Berak "uscara ihian eta arguian" idatzi zuen. Erderatiko hitz berriak erabili ordez, nahiago zuen Belapeirek esateko modu berriak bilatu.

Mende bat eta erdi geroago, Intxauspek, Bonaparteri igorritako gutun batean, gorapaitu egingo du Belapeireren euskara garbia. Intxauspek adierazten

dio printzeari bere ustez ez dagoela euskal liburu zaharren artean, hizkuntzaren garbitasunari dagokionez (“la pureté du langage” dio berak), haren katiximaren parean jartzeko modukorik.

Intxauspek Belapeireren euskararen garbitasunaz esandakoa saiatu naiz aztertzen doktorego tesian. XVII. eta XVIII. mendeetako zubererazko testuetan sarri agertzen diren hainbat mailegu baztertu egiten ditu Belapeirek eta euskarazko hitz zaharragoak erabili. *DeSir, deSiratü, errendatü, falta, obligazione, obligatü, orazione, protsimo, sokhorritü*, esaterako, mailegu oso hedatuak dira aipatutako testuetan. Alabaina Belapeire ez da horiez baliatzen:

DeSir idatzi ordez nahiago du nahi, *su* nahiz *gogo* erabili; ez darabil inoiz *errendatü* aditza: *eskerrak errendatü* baino nahiago du *eskerrak eman*; *khontü errendatü* baino nahiago du *kontü eman*; *saintü errendatü* baino nahiago du *saintü egin*; *falta ez, bekhatiü* zein *ogen* erabiltzen ditu; *obligazione ez, eginbide* darabil; *ofen(t)satü ez, ogen egin* erabiltzen du; *orazione ez, othoitz(e)* darabil; *protsimo ez, khristi lagün* erabiltzen du; *sokhorritü ez, ürgatzi* erabiltzen du; e.a.

9. Bukatzeko doktorego tesian egin ditudanak laburbilduko ditut. Belapeireren garaia, nortasuna eta idazlanak aztertu ditut. *Catechima laburra*-ko grafiak azaldu. Grafia horien ahoskerara hurbildu. Testuaren edizio kritikoa prestatu dut, iturriak (Bossuet eta Materre) ere eskainiz. *Catechima*-ko hitzak oro eta hitz guztien esanahi eta azpiesanahiak biltzen dituen hiztegia osatu dut. Eta azken kapituluan Pronus testuaren edizioa eskaintzen dut Pariseko Bibliothèque Nationalen den *unicum*-az baliatuz. Ondoren *Pronus* eta *Catechima laburra* gonbaratzen ditut: bi testuetako grafiak eta lexikoa.

10. Horiek izan dira gaur zuei jakinarazi nahi nizkizuenak. Esanak jakingarri gertatuko ahal zitzaizkizuen! Eskerrik anitz zuen arretagatik.